Armañon Parke Naturala
*Parque Natural de Armañón*

## Ibilbidearen fitxa teknikoa:

**Ibilbidearen hasiera eta amaiera:**
Parketxean hasi eta amaitzen den ibilbide zirkular bat da.

**Denbora eta distantzia:**
1h 30´ - 4,4 km.

**Metatutako desnibela:**
+/- 265 metro.

**Zailtasun-maila:**
Ertaina. Ibilbide erosoa eta bide onekoa (nolabaiteko zailtasuna duen harri arteko igoera-tarte batean izan ezik).

**Gomendioak:**
Raneron bertan, baserriko produktuak eskaintzen dituen taberna bat dugu; indarrak berritzeko leku aproposa da. Raneroko elizaren ondoan dagoen iturriko ura ez edatea gomendatzen dugu.

## Ficha técnica del recorrido:

**Inicio y fin del recorrido:**
Se trata de un recorrido circular que comienza y finaliza en el Parketxea.

**Tiempo y distancia:**
1h 30´ - 4,4 km.

**Desnivel acumulado:**
+/- 265 metros.

**Grado de dificultad:**
Media. Recorrido cómodo, con buen camino excepto un tramo de subida entre rocas de cierta dificultad.

**Recomendaciones:**
Una vez en Ranero, encontramos una típica taberna con productos de caserío, inmejorable lugar para reponer fuerzas. Aconsejamos no beber agua de la fuente que hay junto a la Iglesia de Ranero.




1. Seinalea / *Señal*
2. Elorri zuriak eta elorri beltzak dituen bidea / *Camino con espino albar y endrino*
3. Raneroko bidea / *Camino hacia Ranero*
4. Raneroranzko seinalea / *Señal hacia Ranero*
5. Karobia / *Calero*
6. Dolina
7. San Zipriano eliza / *Iglesia de San Cipriano*
8. Eukaliptoen ondotik doan pista / *Pista junto a eucaliptos*
9. Dorretxoa / *Torreta*

MAPA *mapa*




## Armañon Parke Naturala
*Parque Natural de Armañón*

Karrantzako Ranero auzoan.
Pozalagua kobazulo aurrean.

Barrio Ranero de Carranza.
Frente a la cueva de Pozalagua.


Tel. 946 560 079
armanon.parke.naturala@bizkaia.net


ARMAÑON
PARKE NATURALA
PARQUE NATURAL

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

# Ranerorainoko ibilbidea
*Ruta hasta Ranero*



**Armañon Parke Naturala**
*Parque Natural de Armañón*

## Deskribapena:

Hasteko, Pozalaguako kobazuloko aparkalekuaren ondoan hasten den pistatik jaitsiko gara Parketxearen atzealdera. Bertan, Ranero auzora jaisteko hartu beharreko bidea adierazten duen seinale bat ikusiko dugu 1. Langa gainditu ondoren, harrizko hormen artetik doan eta alboetan elorri zuriak eta elorri beltzak dituen bide bat aurkituko dugu 2. Hesia gainditu eta 250 metrora, eroritako horma dagoen lekuan, eskuinaldera jo eta Ranerora jaisten den bidea hartuko dugu 3. Aurrerago, 1,5 kilometrora, bidegurutze batera iritsiko gara.

Ibilbidetik jarraitzeko, puntu honetan ezkerraldeko bidea hartu beharko dugu, Ranero adierazten duen seinaleari jarraituz 4. Ranerorantz jarraitu aurretik, eskuinaldeko bidetik jaitsiko gara, eta antzinako karobi baten hondarrak ikusiko ditugu 150 metrora 5. Handik metro batzuetara, dolina bat dago 6. Puntu horretan, atzera egingo dugu bidegurutzera iritsi arte, eta handik Raneroraino igoko gara.

Raneron gaudela, San Zipriano eliza ikusi ahal izango dugu 7. Eliza errenazentista da (XVII. mendekoa).

Ibilbideari berriz ekitean, kontu handia izan beharko dugu. Gure bidea Pozalaguara eta Parketxera igotzen den errepidetik doa, eta 250 metrora ezkerraldera egin beharko dugu eukalipto batzuen ondotik doan pista batetik 8. Pista horretatik gora egingo dugu, harrizko horma beti ondoan dugula. Leize txiki batzuk dituen eremu bat zeharkatu ondoren, erorita dagoen hormaraino jarraituko dugu, eta, Parketxearen azpian gaudela, hesia gainditu eta eskuinaldetik gora joko dugu, Pozalaguako harrobiko balde-linearen lehen dorretxoaren ondotik 9. Antzinako guardetxearen ondotik igaro ondoren, 50 metroko malda igo eta Parketxean agertuko gara berriz.


1

## Descripción:

Descenderemos por la pista que comienza junto al parking de la cueva de Pozalagua hacia la trasera del Parketxea. Veremos una señal que nos indica el camino que debemos tomar para bajar al barrio de Ranero 1. Traspasando la barrera encontraremos un camino que discurre entre muros de piedra y que está flanqueado por espino albar y endrino a ambos lados 2. 250 metros después de atravesar la valla, nos encontraremos con un muro caído, donde nos desviaremos a la derecha para tomar el camino que baja a Ranero 3. 1,5 kilómetros más adelante llegaremos a un pequeño cruce.

Para continuar la ruta, tomaremos el desvío a la izquierda, siguiendo la señal que indica Ranero 4. Antes de seguir hacia Ranero bajaremos por el camino de la derecha, para poder observar a 150 metros los restos de un antiguo calero 5. Unos metros más adelante hay una dolina 6. Llegados a este punto, retrocederemos hasta el cruce y, ahora sí, ascenderemos por el camino hacia Ranero.

Una vez en Ranero, podremos contemplar la Iglesia de San Cipriano, 7 templo de estilo renacentista (siglo XVII).

Tendremos especial cuidado pues nuestro camino discurre por la carretera que sube a Pozalagua y al Parketxea, para desviarnos a 250 metros a la izquierda, por una pista junto a unos eucaliptos 8. Ascenderemos por esta pista siguiendo en todo momento el camino junto al muro de piedra. Atraviesaremos una zona de pequeñas simas y continuaremos hasta llegar al muro caído y una vez debajo del Parketxea, traspasando la valla, subiremos por nuestra derecha junto a la primera torreta 9 de la línea de baldes de la cantera de Pozalagua. Después de pasar junto a la antigua casa del guarda, subiremos un repecho de 50 metros y apareceremos nuevamente en el Parketxea.


2


3


4


5


7

## Ingurueko balioak:

Gaur egungo Parketxea dagoen lekuan, antzinako Pozalaguako harrobian erauzten zen dolomia minerala xehatu eta aire-tranbia batetik garraiatzen zen Ambasaguas auzoan zegoen fabrikaraino.

Raneroko San Zipriano eliza Karrantza osoko elizarik zaharrenetariko bat da eta 2003. urtean zaharberritu zuten.


9

## Valores del entorno:

El actual Parketxea era el lugar donde una vez extraída la dolomía en la antigua cantera de Pozalagua, se trituraba y transportaba mediante un sistema de tranvía aéreo hasta la fábrica situada en el barrio de Ambasaguas.

La iglesia de San Cipriano de Ranero es una de las más antigua de todas las iglesias de Carranza. Fue restaurada en 2003.